BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4288

AGINDUA, 2011ko uztailaren 19koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Euskarri / Euskarri Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Euskarri / Euskarri Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko maiatzaren 13an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskari bat, «Fundación Euskarri / Euskarri Fundazioa» sortu baitzen. Horretarako, «Segi Hiru SL» delakoak 2011ko maiatzaren 10ean emandako eskritura publikoa aurkezten zen. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2011ko uztailaren 14an, fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Hirugarrena.– Estatutuetako 3. artikuluak dioenez, fundazioaren helburua hauxe da: buru-gaixotasunak dituzten desgaituei laguntzeko azpiegiturak eratzea.

Helburu zabal horien barruan, honako ekintza garrantzitsu hauek gauzatuko ditu laster:

– Lan-baliabideak sustatu eta kudeatzea.

– Lanerako baliabideak eta aisialdi eta astialdikoak sustatu eta kudeatzea.

– Gainbegiratze handi, txiki eta ertaineko bizitegi-baliabideak kudeatzea.

– Buru-nahasmendu larria duten pertsonentzat arreta psikosozialeko baliabide espezializatuak sortu eta kudeatzea.

– Osasun mentala ikertu eta berritzea.

– Desgaitasun mentala duten pertsonen senitarteko, tutore eta/edo zaindari nagusientzako baliabide asistentzialak eta euskarri sozialekoak sortu eta kudeatzea.

– Prestakuntza, gaixotasuna eta gaixoa ezagutzea, gizarte-ongizatea hobetzea.

– Fundazioaren helburuak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein.

Laugarrena.– Estatutuen 5. eta 6. artikuluek diotenez, fundazioaren egoitza Donostian dago (Ubarburu etorbidea, 32, 20.014), eta batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Bosgarrena.– Hasierako dotazioa 30.100 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Segi Hiru SL fundatzaileak konpromisoa hartzen du lehen jarduera-programaren gastuak ordaintzeko behar diren funtsak emateko, aurreikusitako finantza-iturriren bat antzua gertatzen bada.

Seigarrena– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Patronatuko kideak, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hasieran hauek izango dira (2013-04-10era arteko iraupena izango dute karguok):

KARGUA	PATROIA
Lehendakaria	«Segi Hiru SL» Fundatzailearen Administratzaile Bakarra, Erramun Beltza Goikoetxea jauna.
Lehendakariordea	Eneida Zabala Burgoa andrea
Idazkaria	María Concepción Rodríguez González andrea

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez. Lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da Fundazioaren eraketa.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta erregistro-zenbaki honekin: F-305, Donostiako «Fundación Euskarri/ Euskarri Fundazioa» erakundearen eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Osaera horren barruko kideak seigarren aurrekarian agertzen dira, eta esan behar da ezen, espresuki onartu dituztela euren karguak, betiere, Donostian, 2011ko maiatzaren 10ean, Guadalupe María Inmaculada Adánez García notarioaren aurrean (818 protokolo-zenbakia) emandako eskritura publikoan zehaztapenekin bat etorriz.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 19a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.